Ganera, interpretetan jarraitzen dot, nire azalpenak eta emondako datuak gorabehera, pentsetan segiduten dozula Bizkaian, gaur egungo fiskalidatean... zure ustez aldatu egin behar dana, eta, horregaitik, gaur egungo ereduak funtzionetan dauela justifiketan ahalegindu naz, baina ikusten dot, nire azalpen eta datuen ondoren, zure eretxiz ez dogula nahikoa egiten gure personek errenta eskuragarriko etxebizitza duina eskuratzeko aitaturako eskubidea euki daien.



Nahiz eta, eta orain egin deustazuzan galderei erantzuten ahaleginduko naz, nahiz eta Bizkaian:

Bat. Higituezin bat hutsik badaukazu alokairuaren merkaduan ipinteko, eta beste erabilera batzuetarako (turistikorako, adibidez) alogadu beharrean etxebizitzarako alogadutea aukeratzen badozu, indarrean dagoen zerga-tratamenduak PFEZren kuotan gitxiago ordaintzea ekarriko deustu, modu nabarmenean. Eta adibide bat ipiniko deustut, zuk bat ipin deustazu-ta, baina kuota diferentzialak dituan bat emongo deustut.

Urtean 27.000 €ko soldata gordina daukan persona bat, eta urtean 10.000ko diru-sarrera gordinak alokairuagaitik, Bizkaian batez besteko alokairuari buruz zuk emondako datuaren arabera. Beraren PFEZren kuotak 1.181 €igongo leuke etxebizitza turistikoa lez alogadu ezker. Hau da, 1.449 euroko kuota etxebizitzarako alogadu ezker, eta 2.631koa erabilera turistikoa izan ezker. % 80 gehiago. Egia, Madariaga andrea, ezin dira konparau bataren eta bestearen zerga-tratamenduak, ezta hurrik emon be, zure berbak erabiliz, baina zure lehenengo agerraldian aitatu dozunaren kontrako zentzunagaz.

Eretxi horri eusten deustazu, Bizkaian –bigarren arrazoia–, 2007tik, etxebizitzen alokairurako zerga-biztugarriak mantenu eta handitu doguzan arren, bai errentatzailearentzat, bai errentariarentzat, PFEZren erreforma eta barrikuspenetan; eta, ostera, Gobernu zentralak, berbarako, 2015ean etxebizitzen alokairu-kontratu barrietarako biztugarriak kendu ebazan, batez besteko diru-sarrera txikiagoak daukiezan zergadunen kalterako.

Eta eretxi horri eusten deustazu, Bizkaian –hirugarren gaia–, 2017-2021 aldian, 208.000 bizkaitarrek 175.000.000 euroko zerga-gastuagaz konpentsau eben arren etxebizitza-alokairuen ordainketea. Horreetatik, 35.000 persona 30 urtetik beherakoak izan ziran.

Edo itxi barri dogun 2022ko PFEZren kanpainan, 50.000 aitorpenetan, 54.000.000 euro esleitu izana etxebizitza alokatzeagaitik kenkari modura.

Bat nator zugaz azaldutako guztia etxebizitzaren arazoa konpontzeko nahikoa ez dala, baina ez nator bat Bizkaiko Foru Aldundian gure eskumenak baliauz egiten dogun ekarpena ezbaian ipinteagaz. Izan be, De Madariaga andrea, lehenengo berbaldian esan deustudan moduan, gaur esku artean daukagun gaia, hau da, Bizkaiko herritarrek etxebizitza duina prezio merkeetan eskuratzeko daukien eskubidea, gai konplejua da, eta hori konpontzeko arlo publikoaren eta pribaduaren jarduna beharrezkoa da.

Eta arlo publikoari jagokonez, Aldundi honi jagoko, eta niri, Ogasuneko Foru Diputadua nazane ezker; politika fiskala da urtenbideak emoteko ardurea daukan politika publikoetako bat, baina ez bakarra. Eta hori, De Madariaga andrea, Euskadin oso agirikoa da. Euskadiko erakunde publikoak egoera hori konpontzeko lanean gabiz, badakigu-ta zeintzuk diran euskal herritarren kezak.

Eta adibide moduan, eta guztiz zehatza izateko asmorik barik, eta zeuk be holan esan dozu, burura jatortaz Eusko Jaurlaritzaren 2021-2023 aldirako Etxebizitzarako Gida Plana, lehen ardatz moduan Euskadin alokairu eskuragarria sustatzea aurreikusten dauena, zuk esan dozun lez, gazteen alokairu-erregimeneko emantzipazioa bultzatu gura dauen ildo espeziifiko bategaz, edo 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala, zeinak, beste helburu batzuen artean, alokairu eskuragarriaren eskaintza publikoa handitzea ezarten dauen, 50.000 etxebizitzako parke batera ailegau arte, eta 15 urtean guztira 350.000 etxebizitza birgaitzea.

Amaitzeko, eta zure galderara bueltauta, De Madariaga andrea, bai, beharrean segiduko dogu, aspaldidanik egiten dogun moduan, fiskalidadeak ahal dauen guztia





egin daian etxebizitzarako eskubidea bizkaitar guztientzako eskubide eraginkorra izan daiten, neurri fiskalakaz, orain daukaguzanakaz eta beste batzuekaz, eta, horretarako, barrikusketara egingo dogu, Euskadin momentu honetan daukaguzan planakaz lerrokatuz, beharrezkoa balitz.

Nada más. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Berrojalbiz Zabala Y a, continuación, pasamos al tercer punto y a la sección de preguntas.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno  
([R.E.12/E/2023/0001413](#))

**Autor:** Arrieta Galarraga, Exabier (EHB)

**Asunto:** Siniestralidad en la actividad forestal.

**Documento Principal:**  
([R.E.12/E/2023/0001413](#))

**Expediente:** ([12/B/25/0000285](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([12/E/2023/0001413SE](#))

**Egilea:** Arrieta Galarraga, Exabier (EHB)

**Gaia:** Basogintzan gertatutako lan istripuak

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2023/0001413SE](#))

**Espedientea:** ([12/B/25/0000285](#))

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Así pues, señor Arrieta Galarraga, tiene usted la palabra.

El Sr. **ARRIETA GALARRAGA** jaunak: Gracias, señora presidenta, y buenos días a todos y todas.

Como todos y todas sabemos, el 8 de septiembre falleció un trabajador a consecuencia de un accidente laboral muy grave. El trabajador, que trabajaba en la empresa Explotación Forestal Zaldupe, sufrió dicho accidente mientras trabajaba en una explotación forestal de Elorrio. Estos accidentes graves son frecuentes en el sector forestal. Y la siniestralidad supera con creces la del sector de la construcción.

Creemos que la Diputación Foral no puede ignorar esta situación, porque, si lo hace, es propietaria de los terrenos de varios bosques, es contratante de empresas del sector, y establece normativas para esta materia.

Por ello, planteamos al Diputado de Medio Natural y Agricultura la siguiente pregunta: ¿Qué medidas va a adoptar la Diputación para evitar accidentes laborales en los bosques de su titularidad y en el ámbito de sus competencias?

Muchas gracias.



La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Arrieta Galarraga. En el turno de réplica, señora Atutxa Lejarreta, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ATUTXA LEJARRETA** andreak: Gracia, señora presidenta, y gracias y buenos días a todos y todas.

Antes de responder a la pregunta, y para llamar la atención sobre la importancia del sector, solamente una pequeña aclaración como punto de partida. Sabrán ustedes que, cada dos años, la Universidad del País Vasco, Baskegur y el Gobierno Vasco publican el informe del observatorio de la madera de Euskadi. En su última memoria se indica que la cadena de valor de la madera está compuesta por 19.000 personas. No son datos baladíes.

Aunque el tamaño y la plantilla de las empresas no son la clave del debate de hoy, quería sacar aquí a la luz la importancia del sector. Y más, teniendo en cuenta los riesgos que suele haber en este trabajo. Es un trabajo realmente duro, eso no lo podemos negar.

Gizon bat hil da Elorrión bere lanean, eta hori tragedia da. Hemendik, gure doluminik zintzoenak beraren familia eta lagunei. Euskadin, edozein sektoretan, jazoten diran laneko ezbehar edo istripuetako bakotxa tragedia da. Tragedia horrek gogoeta eragin behar deusku, eta, batez be, zoritxarreko amaiera hori ekarri daben inguruabarrak aztertu behar doguz.

Alde horretatik, ahozko galdera egin jakon sail honek ez dau eskumenik segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan, eta, beraz, ez dauka ezbehar horri buruzko informazio zehatza eskuratzetik. Eta istripua ez da foru-titulartasuneko mendi baten jazo. Osalan arduratzen da lan-istripuen kausak eta faktore erabagigarriak azterteaz, prebentzio-azterketari helduz, eta neurri zuzentzaile egokiak proposiduten dauz.

Estoy de acuerdo con usted en que los datos son preocupantes y en que debemos prestar la debida atención a este tipo de situaciones.

Y qué se hace desde la Diputación, ha preguntado usted.

En primer lugar, en los procedimientos de licitación de los trabajos en bosques de utilidad pública y bosques patrimoniales, se establece la obligatoriedad de disponer de los planes de seguridad y salud regulados por la ley. Así como la formación del personal, los elementos de protección personal y todos los requisitos que la ley establece. Y en los pliegos se indica que la coordinación en materia de seguridad durante la ejecución de los trabajos debe estar a cargo de la empresa adjudicataria.

Asimismo, en los trabajos desarrollados por el propio Basalan, cuenta también con un servicio específico de prevención de riesgos y seguridad laboral, integrado permanentemente en dicha empresa.

Zertan zehazten dira Basalanek hartzen dauzan neurriak:

- Praktika seguruak egitea, hau da, jardunbide operatiboak, zeinetan arrisku handieneko zereginak eta horreek gauzatzeko prebentzio-neurriak labor eta xehe eskematizetan diran.

- Arreta berezia emoten jako trebakuntzari zeregin honeetarako: motozerrea erabiltea, plataforma jasotzaileak eta garabi-kamioiaren otzara erabiltea, igoteko teknikak, errepideetatik hurbileko lanak...



- Norbera babesteko beharginek daukiezan ekipamentuen jarraipena be egiten da, eta aldian-aldian gogorazotzen da zeregin bakotxerako zer ekipo erabili behar diran.

- Jarraipena egiten da lanlekuan beran, prestakuntza eta emondako jarraibideak ondo barneratu dirala egiaztetako. Prebentzinoko barne-langileak egindako egiaztapenak, baina baita kontratautako kanpo-zerbitzuaren bidez be, zeregin horreek esleitutako zereginen arabera egiten dirala egiaztetako. Bisita horreen erregistro bat dago, eta beharrezko hobekuntzak ezarten dira.

- Era berean, zereginaren aurreko fitxak edo checklistak diseinatu dira, segurtasun-baldintza gehien eskatzen dabezan beharretarako.

Azken batean, gauzak zorroztasunagaz egiten dira. Halan be, interesa badozue, gura badozue, Basalanen egin ohi dan praktika operatibo edo prestakuntza bat ikustera konbidetan zaituet.

Nada más, muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Atutxa Lejarreta, y en el turno de réplica, tiene usted la palabra, señor Arrieta Galarraga.

El Sr. **ARRIETA GALARRAGA** jaunak: Bai, eskerrik asko emondako azalpenakaitik, erantzunakaitik eta argibideakaitik, benetan.

Gustauko litxakit, zuri entzun ostean, ikuspegi konstruktibo batetik ohar batzuk egitea, eta guk arazo hori konpontzeko zer ekarpen egin daikegun azaltzea. Izan be, galdera hori egiteak, galdera hori gaur Osoko Bilkuran egiteak berak, irakurketa bat dauka, Bizkaiko lan-ezbeharren bilakaera kezagarria da, eta, zehatzago esanda, sektore horretan, danok interpeletan gaituana, baita Foru Aldundia be, ezin bestela izan. Izan be, kasu hau dakargun arren, ulertzen dogu ez dala kasu bakar bat, sektore berezia dalako, eta ez Bizkaian, Euskal Herri osoan baino, 2022an bakarrik, lau persona hil dira, eta zalantzazko ranking baten buru da, istripu gehien izan dituan sektorea dan aldetik.

Bestalde, Osalan aitatu da, eta kasu zehatz honetan, bai, arlo pribadua da, enpresa pribadua da, eta Osalan lako tresnak dagoz. Halanda be, uste dogu beste faktore batzuetan be eragin daikeela Foru Aldundiak.

Lehenengo eta behin, eztabaida oso, oso luzea egingo leiteke gaiaz, baina egia da, gure ustez erauzketa intentsiboko larregizko eredu oinarritutako baso-ustiapenaren eredu arrisku handiak sortzeko abiapuntu egokia dala, zentzun txarrean esanda, hau da, zugatzen balio bajuak ale gehiago moztera daroa, eta, horren ondorioz, enpresek uko egiten deusie errentagarritasunaren aldeko prebentzino-neurriei, eta baldintzak prekarizetan dira. Hori da gure basogintza-eredua. Eta hori holan da, bigarren gako bat, kasu honetatik harago, eta zuk esan dozunez, Aldundia be jaubea da, eta, beraz, kudeaketa egiten daben enpresen zuzeneko kontratatzailea. Foru Aldundiak tresnak daukaz, zuk orain aitatu deuskuzu hori, baina, osogarri moduan, uste dogu tresna batzuk aitatu ez dozuzan pleguak izan daitekezala, irregulartasunak daukiezan enpresei zehapenak ezarteko pleguak, Osalane ikuskapenetan edo barne-auditorien bidez, edo laneko arriskuen prebentzinoaren arloan akatsak atzemoten diranean, auditoretza propioak areagotzeko eta zuzeneko alkarrizketea izateko.

Eta, azkenik, Aldundia ez eze, Bizkaiko udalak be jaubeak dira, eta oso interesgarria izango litzateke Aldundia buru eukiko daben protokolo bateratuak ezartea, aitatu deuskuzuna Lurralde Historiko honetako administrazio publiko osoak adostuta ezarri daiten.



Nada más, muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Arrieta Galarraga, y en el turno de réplica, tiene la palabra la representante de la Diputación, señora Atutxa Lejarreta.

La Sra. **ATUTXA LEJARRETA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Ya les he explicado cuáles son las medidas que la Diputación Foral adopta para proteger la seguridad de las labores forestales. Creemos que estamos haciendo las cosas bien, y, aunque intentemos cubrir todas las situaciones de riesgo, todos y todas sabemos que el riesgo cero no existe.

Zuk dinozu ezbehar-tasearen errazoa estu lotuta dagoala baso-lanaren intentsifikazioagaz. Ezin naz bat etorri baieztapen horregaz, horretarako funtzezko oinarri barik, eta uste dot ez dagoala horren aldeko errazoirik edo azterlanik. Aldiz, Osalanen memorietan batzen dan informazioa dago, non lehen sektoreko lanen arriskugarritasunaren errazoi nagusiak jasoten diran; besteak beste, orografia, meteorologia, lan asko bakarka egitea, sektorearen batez besteko adina 58 urtekoa izatea Euskadin...

Eta gehiago esango deutsut, hain zuzen be, baso-lanen mekanizaziorik handiena daukien herrialdeek ezbehar-tasa txikiagoa daukie. Baina nigaz bat etorriko zara eskuzko eta mekanizau bako lanak jasangarriagoak dirala ingurune naturalari jagokonez.

El año pasado nos adherimos al acuerdo marco social de Euskadi Preben, con el objetivo de mejorar la cultura preventiva. Y, el pasado 24 de abril, participamos en el V Congreso sobre Seguridad y Salud en el Trabajo, organizado por Osalan.

Por lo tanto, esta Diputación seguirá trabajando en la cultura preventiva y cualquier aportación que hagan ustedes será bienvenida. Pero es responsabilidad de todos y todas, de los individuos, de las empresas, de la administración.

Mi pésame, una vez más, a las familias y amigos de quienes han resultado heridos en este tipo de accidentes. Seguiremos trabajando para que esto no vuelva a ocurrir.

Nada más, muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Atutxa Lejarreta. A continuación, el cuarto punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.12/E/2023/0001419](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (GM/TB-EB)

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoa ([12/E/2023/0001419SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (GM/TB-EB)



**Asunto:** Cierre del Centro Residencial El Vivero.

**Documento**

[\(R.E.12/E/2023/0001419\)](#)

**Expediente:** [\(12/B/25/0000291\)](#)

**Principal:**

**Gaia:** El Vivero egoitza-zentroaren itxiera

**Dokumentu Nagusia:** [\(12/E/2023/0001419SE\)](#)

**Espedientea:** [\(12/B/25/0000291\)](#)

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias, señora presidenta. Itxidazu ondoetorria emoten El Vivero Artxandako langileak ordezkatzan dauzan batzordeari, honaino etorri dira ta. Beno, Aldundiak itxiereari buruz esan behar dauena entzuteko.

2021. urtearen amaieran Zornotzako lehen harrerako zentroan izandako azken istiluen ondoren, adinbakoak eta langileak El Vivero egoitzara eroan dira, zerbitzuaren instalazioak hobetzeko. Urtebete pasatxo geroago, 2023ko zezeilean, Zornotzako Zentroa barru edegi eban beste erakunde kudeatzaile batek. Halandabe, ez adinbakoak ez langileak ez dira hara bueltau, ez da bete enpresa-subrogazioko klausulei buruzko hitzarmen kolektiboaren 54. artikulua.

Orditik aurrera, Aldundiak konpromisoa hartu dau subrogau bako beharginakaz El Vivero zabalik mantentzeko, ez lehen harrerako zentro moduan, kasu honetan emantzipazinarako zentro moduan baino. Baina konpromiso hori oraintsu eten da, langileei irailaren amaieran zentroa zarratuko dala iragarri jake-ta. Hain zuzen be, zapatu honetan, eta ordutik adin txikikoak sareko beste zerbitzu batzuetara eroaten hasi dira, eta EEE bat aplikau jake zerbitzuko 19 behaginei.

Eta horregaitik guztiagaitik galdetu gura deutsugu, Antxustegi Ziarda andrea, zergaitik egin dan itxiera, eta, beraz, zergaitik ez dan bete persona horreekaz hartutako konpromisoa.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Yo también doy la bienvenida a la representación del comité de empresa, agradeciéndoles que nos acompañen. Y, a continuación, le damos la palabra a la representante de la Diputación. Señora Antxustegi Ziarda, tiene la palabra.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días de nuevo a todos y todas. Yo también doy la bienvenida al personal de El Vivero.

Tira, lehenik eta behin, testuinguruan iipini gura neuke galdera honen gaia dan baliabidea. Zentro horrek momentuan momentuko larrialdietarako baliabide lez funtzionetan izan dau. Eta ze momentu jo dira larrialdizat? Ba, berbarako, Bizkaiko Foru Aldundi honek aurreikusit ezin diran migrazino-fenomenoetatik eratorritako egoerei erantzun behar izan deutesean. Une horreetan, gure Foru Sare asistentzial propio eta hitzartuak gainezka egin dau, atzerritar adinbakoak eta familia-erreferenterik ez daukienak masiboki heldu diralako, bai eta salbuespenezko beste egoera batzuei momentuko erantzuna emoteko be; esaterako, COVIDaren garaian, non babesik barik eta kutsatuta egozan adinbakoak hartu ziran ta.



Era berean, adierazo dozunez, De Madariaga andrea, baliabide hori erabilteko beharra ikusi genduan Zornotzako lehen harrerako zentroan egindako hobekuntzalanek irauan daben bitartean.

Aurrekoa esanda, joan dan abenduan, El Vivero zentroan zerbitzua emoten dauen enpresak, Landalanek, iragarri euskun hitzarmena bertan behera ixteko erabagia hartu ebala, bere egitekoa gizarte-arloko beste jarduera batzuetara bideratzeko. Orduan, zentroaren ardurea hartu eikean kudeatzaile barri bat aurkitzeko lanari ekin geuntsan, beti be, baliabide horretara jo behar dogun salbuespenezko egoerarako.

Hori bat etorri da azken hilebeteetan ikusten genduanagaz: familia-erreferenterik bako ume eta nerabe migratzaileen harrereak eraginda, behera egin dau Asistentziako Foru Sareak (propioak edo hitzartuak) ase daikezan okupazino-indize iraunkorrak, bestelako aparteko baliabide edo dispositiboen beharrik barik. Esaterako, El Vivero zentroa, momentu jakinetan bat-bateko eskaria aseten izan dauena.

Beraz, Sareak bere gain hartu daikezanez El Viveron egozan adinbakoak, horreek gure sareko beste zentro batzuetara eroatea erabagi da, plaza erabilgarriak daukiezan zentroetara, plaza horreetan modu egonkor eta jarraituan lagundu ahal izateko, gizarteratzeko eta babesteko prozesuetan. Halanda ze, eta beti zuhurtziagaz, Landalanegaz epe bat adostu genduan El Viveroko adinbakoak gure Sareko beste zentro batzuetara modu ordenaduan igaroteko, horrek haren gizarte- eta hezkuntza-prozesuetan eta bizitza-prozesuetan ahalik eta gitxien eragin eian.

Helburua, horrenbestez, egoera bati hiru faktore kontuan hartuta heltzea zan: zentroko adinbakoen beharrak eta interesak, Landalanek zerbitzua emoten ez jarraitzeko hartutako erabagia kudeatzea, eta adinbakok zuzkidura hobeak eta plaza hutsak eukiezan zentroetara eroatea. Baliabide publikoak kudeatzeaz arduratzen garanez, gure erantzukizuna da baliabide horreek eraginkortasunez erabiltea eta momentuan momentuko egoera eta beharretara egokitzea. Kasu honetan, gure babespean dagoan adinbako bakoaren interes gorenaren beharra.

Horrenbestez, Sarea une bakoetako beharren arabera dimensionatzen dogu, bai kopuruari bai espezializazioari jagokenez. Eta uneoro bermatuta dago. Hori bai, adinbakoei arreta emotea da, diziplina aaskoko profesionalen lantalde bategaz, eta ahalik eta testuingururik onena eskaintzeko lan egitea, beren bizitza gizartean modu autonomoan, kritikoa eta arduratsuan garatzeko tresnak eskuratzeko.

Eta amaitu egingo dot. Babesbakotasun-egoeran dagozan adinbakoak babestea legezko betebeharra da Aldundi honentzat, ez da aukera bat, betebeharra baino, eta holan egiten dogu eta egiten jarraituko dogu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Antxustegi Ziarda. En el turno de réplica, tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias, señora presidenta.

Begira, Antxustegi andrea, ezin dozu hona igon faltsokeria bi esateko, bata bestearen ondotik. Lehenengo eta behin, ez da larrialdi dispositibo puntual bat, hori ez da egia.



Zure sailetik urtendako mezu elektroniko bat irakurriko deusut. Mezu hori langileak ordezkatzan dauzan persona bati zuzentzen jako, eta hau dino:

“Honen bidez, aurreko egunetan zuek egindako bileran El Vivero, Pertika eta Elgezabal egoitza-zentroei buruz adierazotakoa idatziz helarazoten deusuegu”. Hau 2023ko zezeilaren 21ekoa da. Puntuetako batek holan dino:

“Hiru zentroyen jarraitutasuna ez dago arriskuan ez epe laburrean ez ertainean, kontuan hartuta gaur egun hartzen dabezan adinbakoeyn kopurua eta helduko diranen aurreikuspena, eta sarea osatzen daben 3 zentroek, 3 zentro horreek, Bizkaiko Lurralde Historikoko adinbakoentzako egoitza-harrerako sare egonkorra osotzen dabela”. Halanda ze, hori ez da larrialdi-zerbitzua, inondik inora be.

Esaten dau, ganera, hiru zentroek, El Viverok, Pertikak eta Elgezabalek, izaera bera daukiela, emantzipazinorako prestetako zentro dira ta. Hau da, esan dozuna, lantzean behineko larrialdietarako baliabidea dala, ez da holan, holan erabili zan 2006an. Holan erabili zan 2012an, baina ez da egia gaur egun larriune jakinetarako baliabidea danik. Eta zure sailaren konpromisoa ez zan hori. Erakunde kudeatzailea aldatu da, eta ez da beteten hitzarmenaren 34. artikulua, zeinaren arabera behargin guztien subrogazinoa egin behar dan.

Bigarren faltsokeria. Esan dozu lekuak hutsik daukiezan beste zentro batzuetara lekualdatzen dirala. Ostera be guzurra, eta esango deusut zergaitik. Izan be, gaur egun, esate baterako, Elgezabal zentroak hitzartuta daukazan plazak 40+2 dira. Hori da hitzarmenean esaten dana. Hori adostu eban aurreko diputaduak, eta apalduz joan zan, izan be, gogorarazoten deusut Arartekoak, zenbait txostenetan, salatzen izan dauela ez dagoala daukagun gainokupazinoa onartzerik. Horrenbestez, Zornotzako zentroan okupazinoa eta plaza kopurua mantenu egin da, 40 + urgentziatzako bi, eta gaur egun 65 baino gehiago daukaz; hau da, Sarean ez egoan plaza bat bera be erabilgarri. Zentro hori behar-beharrezkoa da Sarea mantenu ahal izateko. Arabere gehiago, legediaren ez-betete bikotxa daukagu.

Begira, alde batetik, 131/2008 Dekretua, egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituana, eta gogorarazoten deusut 44. artikulua dinoan lez emantzipazinorako prestetako zentroyen gehienezko gaitasuna 30 plazakoa dala, hau da, Elgezabalen zerbitzuak 40 plaza eukitea adostu daikegu, baina Dekretuak dino 30 euki behar dituala, ez 60, ez 65, ez 85, ez 200, eukiten izan dauen moduan. Eta gogorarazo gura deusut, era berean, Arartekoaren gomendioa irakurri daizula, 2023R-9-23-O ebazpena, hain zuzen be. Horren arabera, zure sailaren erantzukizuna dira adinbako horreen segurtasuna eta babesa, baldintza duinetan. Eta zuek orain emoten dozuen konponbidea kontrakoa da, hain zuzen. Ez aitatu adinbakoeyn interes gorena, hemen urratzen dana, hain zuzen be,...

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Vaya terminando, por favor.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: (...) printzipio hori da-ta, Antxustegi andrea.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. No, las personas eta están las tribunas están invitadas a seguir el pleno, no a participar en él. Por lo tanto, aquí no se pueden expresar opiniones ni a favor ni en contra.

Tiene usted la palabra.



La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Minutu bat besterik ez daukot, eta, jakina, ezin dinot erantzun esan deustazun guztiari. Datorren astean agerraldia egingo dot, eta dana nasaiago eta punturik puntu zehazteko aukerea eukiko dot.

Hori esanda, askotan batu gara, lantaldea batu da Enpresa Batzordeagaz eta sindikatuakaz, zentro horretarako alternatibak bilatzeko. Emantzipazinorako prestetako zentroetan zerbitzuak emoten dabezan entidade guztiakaz hartu-emona egon zan, zentroa kudeatzen jarraitzea proponiduteko. Baina ez zan konpromisorik lortu, batez be langileen subrogazinoagaitik. Era berean, El Viveroko behargin-talde batek kooperatiba bat sortzeko aukerea planteau eban, eta GUFEK laguntza emon eutsen espezializautako persona bategaz, baina azkenean ez zan bideragarritzat jo.

Horregaz batera, familia-erreferenterik bako adinez beherako migratzaileak ailegau dira eten barik, eta El Viveroko baliabidea salbuespenezkoa da. Baina argi itxi gura dot Landalaneko langileen oraingo egoera ez dauela eragin El Vivero baliabide arrunt lez itxi izanak, langile horreek subrogau ez izana baino.

Eta esan dozu kezkatuta zagozala edo dana dalakoa, baina ez zara etorri nigaz berba egitera. eta Aldundia egiten dabilenaz galdetzera. Dana dala, esan deutsudan lez, datorren astean agerraldia egingo dot, eta berba egingo dogu.

Beste alde batetik, ondo baino hobeto dakizu migratzaileen fluxua ez dala lineala, hau da, ez dabe ohartarazoten badatozela, orduan, noski, kontu dinamikoa da eta egoeretara egokitu beharra dago eta birdimentsionau behar da bizi dan momentuaren arabera, jazoten dan momentuaren arabera, eta horretan gabilz, barriro dimentsinonetan gabilz. Hobetzeko tarte dagoala? Bai, noski. Eta egiten gabilz, baina horretaz guztiaz, esan dodan lez, datorren astean berba egingo dogu. Eta egia da personalki oindino ez dodala sindikatuakaz hitzordurik egin, baina laster egingo dot, adituko dot eta ziur egon bai nire lantaldeak bai nik egoera hau ahalik eta ondoen amaitzea gura dogula.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Antxustegi Ziarra. Y quinto y último punto del Orden del Día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno  
([R.E.12/E/2023/0001425](#))

**Autor:** Casanova Alonso, Iker (EHB)

**Asunto:** Impuesto a las grandes fortunas.

**Documento Principal:**  
([R.E.12/E/2023/0001425](#))

**Expediente:** ([12/B/25/0000296](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([12/E/2023/0001425SE](#))

**Egilea:** Casanova Alonso, Iker (EHB)

**Gaia:** Fortuna handien gaineko zerga

**Dokumentu Nagusia:** ([12/E/2023/0001425SE](#))

**Espedientea:** ([12/B/25/0000296](#))





La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Así pues, señor Casanova Alonso, tiene usted la palabra.

El Sr. **CASANOVA ALONSO** jaunak: Buenos días a todos y todas, buenos días, señora Berrojalbiz. No le daré la bienvenida porque yo soy nuevo aquí, pero siempre es agradable encontrar caras conocidas en este nuevo recorrido.

En diciembre de 2022 entró en vigor en el Estado un nuevo impuesto denominado Impuesto de Solidaridad de las Fortunas. Al tratarse de un nuevo impuesto, en la Comisión Mixta de aquí se acordó su adaptación e integración en nuestra estructura fiscal.

Ya se han dado algunos pasos en esa dirección y en abril de este año se hizo una exposición pública del avance de la norma foral que debe regular la integración de este impuesto en nuestra estructura fiscal, pero a partir de ahí no hemos tenido más noticias.

Este impuesto es un impuesto provisional, por lo que hay un plazo. Es fundamental que esto entre en vigor a la mayor brevedad posible, y nos preocupa que cuando en esa época, también en abril, otros itinerarios que estuvieron en exposición pública han sido muy rápidos y algunos ya han sido enviados a esta cámara, no tenemos noticias de esta ley o de esta norma foral. Por lo tanto, lo que le preguntamos es si su departamento va a dar los pasos necesarios para la adaptación y entrada en vigor de este impuesto en Bizkaia en 2023.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Casanova Alonso. Y en el turno de réplica, la señora Berrojalbiz Zabala, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta de las Juntas Generales. Buenos días, señor Casanova. Para mí también es un placer seguir debatiendo y que usted plantee también esta pregunta, que tiene una respuesta clara: sí.

Esan dodan moduan, zure galderearen erantzuna, Casanova jauna, horixeda: bai. Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko Fortuna Handien aldi baterako Alkartasun Zergea kobretako behar diran pausu guztiak emoteko asmoa dauka. Horren erakusgarri da Foru Gobernuak aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea arin zabaldu ebalu, justifikazioan aitatu dozun moduan.

Eta, horretarako, gogorarazo gura deusudaz aurrekariak eta emondako pausuak: abenduaren 27ko 38/2022 Legeak Fortuna Handien ganeko Zergea sortu eban.

Era berean, zergea indarrean sartu zan egunetik aurrera, hau da, 2022ko abenduaren 28tik aurrera, lehenengo ekitaldi bietan aplikauko dala xedatu zan.

Euskadiri eta, gure kasuan, Bizkaiari jagokenez, bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikauz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa be 2022ko abenduan bildu zan, Fortuna Handien aldi baterako Alkartasun Zergea barria ituntzeko, araudi autonomoko itunpeko tributu moduan, Ondarearen ganeko Zergearen osagarria, dagoaneko Bizkaian xedatzen dana eta tributetan eta kobretan dana, eta Fortuna Handien aldi baterako Alkartasun Zergeak Estaduan indarrean jarraitzen dauen ekitaldi guztietarako ondorioakaz.



Ekonomia Itunaren testuari zerga barri horren ituntzea gehituz egindako aldaketea 2023ko apirilaren 4an argitaratu zan BOEn.

Azken baten, Fortuna Handien ganeko Zerga igazko abenduaren 28an sortu zan, beraren sortzapena baino hiru egun lehenago; hurrengo egunean itundu zan Batzorde Mistoan, eta Kontzertu Ekonomikoan sartzea apirilaren 4ko BOEn argitaratu zan, Batzar Nagusi honeek deseginda egozala.

Bada, hurrengo egunean, 2023ko apirilaren 5ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko izapidetze-prozesuen atalean argitaratu zan Bizkaian fortuna handien alkartasunaren aldi baterako zerga ezarteko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea.

Maiatzaren 6an, herritarrek iradokizunak edo ekarpenak idatziz aurkezteko emondako hilebeteko epea igaro ostean, emoitzen memoria egin zan, jasotako proposamenei buruzkoa, eta maiatzaren 17an argitaratu zan, eta ondorioztatu zan ez zala eragozpenik jaso.

Aurreko guztiagaitik, barriro dinot erantzun, Casanova jauna, baiezkoa dala, eta uste dot nahiko esanguratsua dala zerga barri horri buruz daukagun asmoari jagokonez, apirilaren 5ean bertan, hau da, hori egiteko gaitasuna geure eskuetan euki genduan lehenengo egunean, hori sortzeko aurretiazko kontsulta publikoa edegi genduala.

Nada más. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Berrojalbiz Zabala. Y, en el turno de réplica, tiene la palabra el señor Casanova Alonso.

El Sr. **CASANOVA ALONSO** jaunak: Tira, ba, pozten naz erantzuna argia eta zehatza izateaz, baina nik bai eskatuko neuskizu erantzuteko, berbakaz ez eze, ekintzakaz be bai, eta erakusteko asmoa daukazuela, bai, baina ganera egin egingo dozuela. Izan be, erantzun positiboagaz pozik nagoan arren, ez nator bat gaia kudeatzeko arintasunari buruz emon dozun argudioagaz. Gogoratu behar da zerga hori aldi baterako dala, oraingoz, batzuek zerga iraunkor bihurtzea gura geunkean arren, eta, horrenbestez, epeek premiatu egiten dabe eta zerga hori bere indarraldiaren barruan behar dan moduan kobrau ahal izateko, beharrezkoa da arinago garatzea.

Gaur bertan, Bizkaiko hedabide ezagun bateko ekonomiako kazetari ezagun baten artikulua bat agertu da prentsan, erreforma fiskalari buruz berbaz. Eta, hain zuzen be, lehenengo esaldia “ez dago presarik, guztiz kontrakoa” zan. Eta hau be apur bat etorri jat gogora, zerga honegaz egiten zabiltzena dala ta. Niri begitantzen jat oinak arrastaka zabiltzela apur bat, eta esan dot, ganera, ez dodala neuk asmatu, edo ez dala teoria konspiranoiko baten ondoriozko sentsazioa, baizik eta, hain zuzen be, beste arau batzuek ibilpide paraleloa euki dabela, honegaz batera hasi zala hareen ibilerea, eta askoz be aurreratuago dagozala.

Ezagutzen doguz aurrekariak, badakigu zerga hau beharbada ez jatzuela asko gustetan. Badakigu ondarearen ganeko zergeak ez daukala ospe handirik, antzeko zerga dala eta beste momentu batzuetan hemen kendu be egiten izan dala.k Baina nik esan gura deutsuena da, lehenengo eta behin, ahozko erantzun positiboa jaso dogula, eta oso adi egoteko asmoa dogula adierazotern deutsuegu, benetan atxakiarik sortu ez daiten, edo ezinbestekotzat joten dogun zerga bat abian jartea luzatu leikien elementu barririk agertu ez daiten.

Entendemos que la entrada en vigor de este impuesto es fundamental por dos razones importantes:



En primer lugar, porque aumentaría la recaudación, es cierto que no es de una importancia capital desde esa dimensión cuantitativa, las cantidades no van a ser tan grandes, aquí tenemos el impuesto sobre el patrimonio, y podemos entenderlo como un plus complementario, pero es importante porque cualquier cantidad va a ser beneficiosa, y bienvenida sea, porque aquí las necesidades son grandes.

Y es muy importante que este impuesto entre en vigor desde un punto de vista pedagógico. El debate sobre fiscalidad está en boca de todo el mundo, y en los últimos años se le ha hecho mucho daño a la fiscalidad progresiva, ha habido retrocesos evidentes, y la conclusión es que hoy por hoy los ricos pagan menos impuestos. Así pues, creemos que es importante la entrada en vigor de este tipo de impuestos, para aumentar la recaudación, y también para socializar un mensaje: quienes más tienen pueden y deberán aportar más Y, de esa manera, poder seguir avanzando en la dirección de esa fiscalidad progresiva.

Por lo tanto, como he dicho, si nos equivocamos, o tenemos dudas acerca de la rapidez de ustedes, por favor, desmientanos con hechos, y así lo asumiremos cuando veamos que se han dado pasos, que las cosas se están haciendo correctamente. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Casanova Alonso. Y en el turno de réplica, la señora Berrojalbiz Zabala, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Casanova jauna, zure berbakaitik, interpretatu daiket nire erantzuna, zerga hau sortzeko asmoa berretsiz, ez dala izan zuk espero zenduan modukoa, eta, egia esan, ez dot zergaitia ulertzen. Eta egintzak aitatu deusadaz.

Bizkaiko Foru Aldundiak 40 urte baino gehiago daroaz Ekonomia Itunak autortzen deuskuzan zerga-eskumenak gauzatzeko une bakoitzean emon beharreko pausu guztiak emoten. Eta oraingo honetan be holan da. Halanda ze, nire erantzuna berretsiz ezin dot egin, eta esan behar deusut Foru Gobernu hau beharrezko pausu guztiak emoten dabilela zerga hori Bizkaian ezarriko dauen Foru Arauaren proiektua aurkezteko. Proiektua 2023ko abenduaren 31n ondorioak euki daizan behar besteko aurrerapenagaz bialduko da, eta konfiantza daukagu zure taldearen babesari esker, eta Batzar Nagusi honeetako ganerako taldeen babesagaz batera, 2023an fortuna handien alkartasunaren aldi baterako zergearen aplikazioa bermatuko dala.

Nada más. Muchas gracias.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Berrojalbiz Zabala. Y, agotado el orden del día, termina asimismo esta sesión de Juntas Generales. Muy buen día a todos/as.

Batzarra 12:25ean amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:25 horas.

